BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

2916

EBAZPENA, 2012ko abenduaren 21ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Beaz Bizkaiko enpresa eta aurrerapen zentrua erakundeak 2008ko GLSFren kontura proiektuei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Fortalecimiento de las actividades socioeconómicas del municipio El Salvador en el marco de la reconversión azucarera» proiektuari uko egiteko eskaera onartzen duena.

2008ko abenduaren 16ko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Aginduaren bidez, Beaz Bizkaiko enpresa eta aurrerapen zentrua erakundeari 492.765 euroko diru-laguntza eman zitzaion «Fortalecimiento de las actividades socioeconómicas del municipio El Salvador en el marco de la reconversión azucarera» proiektua gauzatzeko.

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2012ko apirilaren 3an bidalitako komunikazioan, lehenengo ordainketaren zati bati (11.771,39 euro), bigarren ordainketari (197.105,88 euro) eta hirugarren ordainketari (98.552,94 euro) uko egiteko eskaera aurkeztu zuen.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 28. artikuluko 1. idatzi-zatiak ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaileak proiektuaren aurreikusitako garapenean funtsezko eragina izan dezakeen edozein gorabeherak jakinarazi beharko dizkio aldez aurretik Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari, eta proiektuan egin nahi diren aldaketak gauzatu aurretik baimen-eskaera bidali beharko dio, aurrekontuan dituzten ondorioak zehaztuta.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Beaz Bizkaiko enpresa eta aurrerapen zentrua erakundeari 2008 GLSFren kontura proiektuetarako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Fortalecimiento de las actividades socioeconómicas del municipio El Salvador en el marco de la reconversión azucarera» proiektuari uko egiteko eskaera onartzea.

Horren ondorioz, Erakundeak lehenengo eta bigarrengo ordainketei dagokien kopurua (justifikatuta ez dagoena) itzuli beharko du, hau da, 208.877,27 euro. Halaber, hirugarren ordainketa egiteko akordioak (98.552,94 euro) indarra galdu du.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den

egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 21a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.